

## Nazio Galegoa

Jakin-en bigarren aldi honetan, lehen hamarkada betetze-ra goaz aurtzen. Urte hauei begiratu bat ematean, berehala ikusten da herri txikien ardura zein bizirik dagoen aldirikariaren zenbaki eta orrialdeetan. Bigarren alea Europako «nazio ukatu»ei eskaini genien; hamahirugarrenean, arlo berari beste errepasso orokor bat eman genion, Soviet Batasunekoak aztertuz. Herri minorizatuen arazo mugatuago batzuri ere behin eta berriz heldu zaie (Elebitasuna, Normalizazioa, Irakaskuntza...), eta, azkenik, ez da falta izan, han-hemenka, dossier monografikorik gabe ere, unean uneko berriemate laburragorik. Hauetakoa da, esate baterako, Kataluniari arreta segituagoz eskaini izan dioguna.

Baina oraingo honekin heltzen diogu, lehenengo aldiz, Penintsula Iberiarreko nazio bati: Galizia aukeratu dugu zenbaki monografiko honetarako. Eta ez, noski, arrazoirik gabe.

Estatu bat beraren (aterpean, edo) euripean bizi behar dugunez, Hegoaldeko euskaldun guztiok eta Galiziako galego denek patu historiko beretsua dugu, alde horretatik. Honelako kidesan batzuren ondoan, aldeak ere ez dira makalak. Ditugun antz eta diferentziek merezi dute, elkarren ezagumendu hurbilago baterako, argibide-bilduma hau; bestalde, Galizia ez bait da urruneko zerbait, geure etxekoa baizik.

Izan ere, Trintxerpen omen dago Galiziako «Bostgarren Probintzia». Beste gisa bateko «Trintxerpe» sinboliko batean bil genitzake Euskadiko inmigrazio galiziar historikoa eta, etorritako gurasoekin batera, jaio zaizkien seme-alabak.

Ia 75.000 etorkin iritsi dira Galiziatik Euskadira, hiru uhinaldi handitan: lehenengoa aurreko mendearen azkenetan eta XX.aren lehen urteetan etorri zen, Ibaizabal-en Ezkerraldean lana bilatuz (Barakaldon lehenengo «Centro Gallego»a, 1903). Hurrengo uhina 1920.etan irten zen A Coruña-ko hego-kostaldetik, bere egoitza Pasaiako sanpedrotarren artean hartuz: Trintxerpe. Azken olatua 1960etako da; abiapuntu sakabanatuetatik zetozen eta hemen ere —Euskadin, alegia— barreiatu egin ziren, beti ere galego-elkarteen ingurura biltzeko joera ezaguna mantenduz. Ohartuki ez bada, bizitzaz erakutsi izan dute Galiziatiko etorkinok beren nortasun nazional eta kulturala. Gaur egun 15 biltoki edo elkarte galego daude Euskal Herrian: bat Nafarroan (Iruñea), 2 Araban (Gasteiz, Laudio), 5 Gipuzkoan (Donostia, Eibar, Elgoibar, Trintxerpe, Zarautz) eta 7 Bizkaian (Bilbon bi, Barakaldo, Ermua, Ondarroa, Santurtzi, Sestao). Hauetatik hainbat, gainera, euskal nortasunaren alde azaldu izan da, horretarako borrokan ere parte hartuz.

Gizartean bizikidetasunak dakarren elkarrizketa hau lagundu nahiko luke zenbaki honek. Izan ere, Euskal Herriaren batasuna eta etorkizuneko nortasuna denon artean egin beharko bait dugu. Bete eta ospatu-berria da Rosalia (1837-1885) olerkarisaren mendeurrena, eta aurten dugu Castelao-rena (1886-1950). Egokiera hau tarteko dela, itxurazkoa iruditu zaigu ale berezi hau muntatzea, baita euskaldunok Castelao-ri diogun zorren bat arintzeko ere.

Alfonso R. Castelao-k, berrikitan liburu batek erakutsi digunez (Castelao y los vascos, Idatz-ekintza, Bilbo 1985), euskal abertzaleatasunaren gorabeherak gertutik bizi izan zituen, hurbiltasun ideologiko eta politikoz, alegia. «Galeuzca»-zale suharra izan zen, gerraurretik (Santiago, 1933) eta gero (Buenos Aires, 1945), heriotzak eraman zuen arte (Buenos Aires, 1950).

Bestalde, euskaldunok ez ditugu ahanzi erabat ez Castelao eta ez haren sorterrria, Galizia. Egon da gure artean horretaz arduratu denik. Informazio-harreman hauetan ez gara, ba, jakin-en lehenengoak, zorionez. Castelao-renetik hasteko, gogora ditzagun euskaratuta dauden haren poemak: Ollo de vidro, Os vellos non deben namorarse, Os dous de sempre, Alba de Groria, Nos bildumatik, Sempre

en Galiza-tik eta Parlamentuko hitzaldietatik zatiak K. Izagirre, A.M. Labayen, G. Aresti, R. Etxezarreta jaunek itzuli dituzte.

*Baina hango idazleetatik ez da Castelao bakarrik izan euskarara itzulitakoa. Rosalia-ren Negra Sombra eta A xusticia pola man iazko mendeurren-ospakizunetan eman ziren euskaraz argitara. V. Paz Andrade-ri Pranto matricial eta Manuel Maria Fz. Teixeira-ri A Berenguela eta Os maios itzuli zaizkie, K. F. Larrinoa, G. Aresti eta K. Izagirre-ren eskutik.*

*Badago oraindik bidean datorren besterik ere, itzulpen-lanik alegia; baina handik honako ekarri hauen ondoan, une historiko gogoangarri batzutan egon da hemendik harako ukiturik ere. Hemeretzigarreneko «Rexurdimento» hartan (1863-1900), adibidez, jatorriz euskaldunen bat protagonista izan zen: Aureliano Agirre Galarraga-k Santiago-ko literatur lagunarteetan adiskidantza emankorra izan zuen Rosalía de Castro eta beronen orduko senargaiarekin, gero-ko senar Manuel Martínez Murgia-rekin alegia. Honi ama-rengandik zetorkion, nonbait, abertzaletasuna: «Amak Euskal Herriari zion maitasuna ikustean piztu zitzaidan neri Galiziarekikoa», esan ohi zuen Murgiak (ama hori Kontxa Murgia Egaña zen, oiartzuarra jaiotzez, 1823an Tolosatik Galiziara, «San Luis-en Ehun Mila Seme» haiengandik ihesi joandako familia liberal bateko alaba). Anekdota honek balio berezia du, Murgiak jarri bait zizkion, hain zuzen, abertzaletasun galego liberalari bere oinarriak, Larramendiren irakurlea ere bazen Murgiak.*

*Hastapen-puntu haietatik ekinda, Kataluniarekin lehenengo (Rosalia, Murgia eta Brañas-ek Balaguer eta J. Maragall-ekin) eta Euskal Herriarekin geroago, «Elkarte Hirukoitza» deitu dokumentu politikoa (1923) sinatzeraino iritsi ziren harreman kultural eta politiko haiek. Hurrengo urteetan berrituko ziren harremanak, noski (1933, 1944-45). Orain, batez ere literatur harremanetarako, egokiera berri bat sortzera doala dirudi: Idazle katalan-euskaldun-galegoen arteko Kongresuen ondoren (Sitges 1984, Donostia 1985 eta aurtengoa Santiagon 1986), itzulpen- eta argitarapen-politika hirukoitz bat hasiko da, asmoak betetzen badira bederen.*

*Naziotzat hartzen dugu Galizia, naziotasun horren kontzientzia orain mende t'erdia hasi bait zen garatzen hango*

*kultur gizon-emakumeen eraginez. Alde askotatik hel geniezaiokeen Galiziaren errealitateari. Horietatik nagusitxoen batzu bakarrik hartu ditugu gogorakizuntzat. Eta abertzale-tasunaren historiari leku zabalagoa eman diogu, bere burua naziotzat aitortuz datorren Galiziari gure aitorten honen omena eta begiramendua ere eskainiz.*

*Mende honen azken laurden honetan, Penintsulako (hor-koak bakarrik ez bagara ere) nazioei egokiera historiko berria sortzen ari zaie. Alde batetik, periferiatik periferiara joateko zentrutik pasa behar hura pixka bat lasaitu egin da, eta ale honek, hain zuzen, prozesu hori lagundu nahi luke, nazio zapalduak aurrerantzean elkertasunaren babes hobe-za izan dezagun. Bestalde, Europako proiektua ere sartu zaigu etxera: herri txikiok batasunean indar egiten ez badugu, jai dugu guztiok etorkizunean.*

*Xede horretara zuzendu dugu ale hau: elkarren ezagupideaz batasuna erraztera, alegia. Irakurle bat baino gehiagorentzat, eta zenbaki hau prestatu dugunontzat ere, Galiziaz lehen argibide batzu jasotzeko aukera izan daitekeelakoan, edo aukera on bat gehiago behintzat.*

Donostia, 1986ko apirillean